

KM. Liburu baliotsuenak

Estitxu Zabala

Balio handiko liburuak, eskuizkribuak, aldizkariak, hainbat jaialdietako kartelak, argazki zaharrak..., material ugari bildurik dago Koldo Mitxelenako Fondo Gordeen Gelan. 1993ko azaroan Kulturunea bera sortu zenetik, martxan dago zerbitzu hori. Lehen ez zegoen liburutegitik oso bereizturik. Orain, liburutegiaren barnean egon arren, aparteko gela bat da. Fondo aberatsak ditugu, eta erabiltzaileentzat gela egokia eta isila da, argitu du Karmen Bilbao Koldo Mitxelenako liburuazainak.

Arrazoi ugari daude liburuak eta bestelako materialak Fondo Gordeen Gelan gordetzeko. Balore handiko liburuak izaten dira, balorea ekonomikoa edo edukiarena izaten da. Liburuak fondo itxi eta irekietan bereizten dira. Fondo gehienak erositakoak dira, baina donazioak ere badaude, azaldu du Bilbaok. Egileak hilak baldin badaude, fondoak itxiak daudela esaten da. KMko gela berezian fondo itxi hauek daude gorderik: Julio Urkijoren liburutegia, Jose Maria Busca Isusirena eta Gabriel Zelaiarena. Horien artean Urkijorena goraipatu du Bilbaok. Euskal literaturan eta historian, garrantzi handia izan duela dio. Koldo Mitxelena berak esan zuen Urkijoren liburutegirik gabe ezingo genukeela euskal literaturaren historia egin.

Itxi gabeko fondoetako materiala ez da liburutegi jakin batean sailkatutakoa izaten. Arrazoi askorengatik jasotzen da material hori; batez ere, bitxiak, baliotsuak edo inkunabileak direlako (inprentsa sortu zen garaikoak). Deskatalogatutako materiala eta eskuizkribuak sail horretan sartzen dira esaterako. Esfortzu berezia egiten dugu Donostia eta Gipuzkoaren inguruko materiala biltzeko.

Biltegietan erlikia gehiago

Fondo gordeetako material guztia ez dago Koldo Mitxelenan jaso, ezinezkoa baita guztia bertan sartzea. Aukeraketa baten arabera, materialaren zati bat beste biltegi batzuetara eramaten dute, eta fondo erreserbatuen parte izatera pasatzen dira.

Material guztia kontsultatu daiteke Fondo Gordeen Gelan. Hala ere, dokumentu gehienak kontsultatzeko eskari egin beharra dago. Gutxi dira eskaria egin gabe kontsultatu daitezkeen dokumentuak: Abizenen hiztegia eta entziklopedia. Gainerako guztiak gelan bertan kontsultatu daitezke baina eskaria egin ondoren. Gelan dagoen materiala baldin bada, momentuan kontsultatu daiteke. Eskaria gelan bertan edo Internet bidez egin daiteke. Dokumentu guztiak katalogatuak daude, beraz, interesa dutenek jakin dezakete zein den eskuragai dagoen materiala. Aizkibelen lanak esaterako, liburutegia sortu zutenetik daude. Lan horiek kontsultatzeko eskaria egin behar da, beste biltegi batean daudelako. Eskaria goizean egin ezkerro, arratsalderako hemen izango duzu, eta arratsaldean egin ezkerro hurrengo egunerako, azaldu du Bilbaok.

Badago oso egoera kaskarrean dagoen materiala ere, eta dokumentu horiek errestituatzen ari direla azaldu du Bilbaok. Bestetik, mikrofitxak izenekoak daude. Mikrofitxen bidez liburuen fotokopiak egin daitezke, hala, ez dira originalak hondatzen. Hala ere, aro berrietara egokituz materiala digitalizatzen ari direla ere aipatu du.

Bisitariak

Fondo Gordeetako materiala kontsultatzeko ez da beharrezkoa KMko bazkidea izatea. Materiala ikusteko identifikazio txartel bat eskatzen dute, besterik ez. Askok dira Fondo Gordeen Gela erabiltzen dutenak. Urtean 8.000 eta 10.000 bisitari inguru joaten dira materiala kontsultatzera. Ikertzaileak eta unibertsitateko ikasleak izaten dira ohikoenak. Hala ere, atzerritar asko, batez ere Hego Amerikakoak, euren abizenen jatorria ikertzera etortzen dira.